

BEKA-DEIALDIA

ORIOKO HITZAK ETA ESAMOLDEAK BILDU, JASO ETA HEDATZEKO

1. HELBURUA

Orioko Udalak herriko hitzak eta esamoldeak bildu, jaso eta hedatu nahi ditu, belaunaldi berriek horien berri jakitea eta normaltasunez erabiltzea bultzatzeko, eta horretarako egiten du beka-deialdi hau.

2. HARTZAILEAK

• Eskatzaileak pertsona fisikoak izango dira, eta **18-35 urte bitartean** izan behar dituzte deialdian parte hartzeko. Ez dute nahitaez Orion erroldatuta egon behar, baina hori baloratu egingo da.

Bakarka zein taldeka aurkezteko aukera dago. Taldeka aurkeztuz gero, taldekide bat izendatu behar da lanaren arduradun eta gainerako taldekideek ere bete behar dute adinaren baldintza.

Pertsona edo talde bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

3. BEKAREN EZAUGARRIAK

- Bekari dagozkion lan guztiak euskaraz egingo dira (proiektua, azterlana bera, tarteko lanak, hedapenerako euskarriak...).
- Bekaren iraupena **6 hilabetekoa** izango da gehienez, adjudikatzen den egunetik kontatzen hasita.
- Bekaren zenbatekoa **3.000 eurokoa** izango da, eta diru hori Udalak 2023ko aurrekontuan aurreikusita daukan partidatik ordainduko da.

4. BEKADUNAREN EGINBEHARRAK

- Orioko hitzak eta esamoldeak bildu eta jasotzea, eskura dauden iturriak hustuz, eta bilduma hori ondo antolatutako euskarri digitalean entregatzea Udalari.
- Bildutako materiala aztertu eta ale interesgarrienak apartatzea, aurrez zehaztutako irizpideen arabera: hitzaren edo esamoldearen indar espresiboa, gazte-hizkerarako izan dezakeen erabilera, zabal hedatzeko modukoa izatea...
- Apartatutako ale horien zabalpenerako euskarriak diseinatu eta sortzea (Twitter, Instagram eta abarretan zabaltzeko pilulak, bideo-pilulak, eskoletan erabiltzeko moduko materiala, argitalpenak...) eta horien hedapenean laguntzea.
- Amaitutakoan, egindako lanari buruzko memoria aurkeztea Udalari eta, Udalak egoki ikusiz gero, lanaren aurkezpen publikoa egitea, adostutako egun batean.

5. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Hauek dira deialdian parte hartzeko aurkeztu beharreko agiriak:

- Beka eskatzeko orria, Udalaren eskaera-orri ofizialaren arabera.
- Eskatzailearen curriculum, behar bezala beteta, baloratu litezkeen datu guztiak jasotzen dituen. Taldeka aurkeztuz gero, taldekide guztien curriculum aurkeztu behar da.
- Beka-deialdira aurkezten den proposamenaren zer-nolakoak azaltzen dituen txosten ahalik eta zehatzena (gehienez, 10 orrialdekoa).

Dokumentazioa Orioko Udaleko erregistro elektronikoa aurkeztu behar da **hilabeteko epean**, deialdia Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

6. EPAIMAHAIA

Beka nori eman erabakiko duen epaimahaia honela osatuko da:

- Orioko Udalak izendatutako bi pertsona, gaien adituak.
- Udalean euskara-gaien ardura daukan zinegotzia.
- Orioko Udaleko euskara-teknikaria, idazkari-lanak ere egingo dituen.

7. ADJUDIKAZIOA

Aurkeztutako proiektuak irizpide hauen arabera puntuatuko dira eta puntuaziorik altuena lortzen duenari adjudikatuko zaio beka:

- Proiektuaren kalitatea eta interesa (bilketa-lanerako iturriak, erabiliko diren baliabideak, lan-metodologia, zehaztasun-maila, aurkezpenaren txukuntasuna...). **Gehienez, 50 puntu.**
- Proiektua bideratuko duen lantaldearen prestakuntza eta curriculum. **Gehienez, 25 puntu.**
- Proiektua bideratuko duen lantaldearen kideak Oriokoak izatea edo Orion erroldatuta egotea. **Gehienez, 15 puntu.**
- Proiektuak genero-berdintasunaren ikuspuntua kontuan izatea. **Gehienez, 10 puntu.**

Epaimahaia proposatu dezake bekarik ez ematea, baldin eta aurkeztutako lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

Orioko Udalak dekretu baten bidez adjudikatuko du beka, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren; eta horren jakinarazpena bidaliko die aurkeztu diren guztiei.

Bekaren onuradunak ez badio, 10 eguneko epean, berariaz eta idatziz uko egiten adjudikazioari, Udalak ulertuko du onartu egiten duela beka. Beka onartzeak berarekin dakar oinarri hauek osotasunean onartzea ere.

8. BEKAREN ORDAINKETA

Beka bi zatitan ordainduko du Udalak:

- % 30, adjudikazioa jakinarazi ondoren.
- % 70, proiektua burututakoan eta epaimahaia ontzat emandakoan.

Onuradunak proiektua gauzatzeko ez badu, aurrerakin gisa jasotako diru-kopurua itzuli egin beharko dio Orioko Udalari, berandutzako interesak gehituta, araudiak ezartzen dituen baldintzen arabera.

Bekaren dirua jaso ahal izateko, onuradunak beteta izan behar ditu Udalarekiko zerga-betebeharrak.

9. KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela bermatzeko. Proiektuan egokitzapenik edo aldaketarik proposatuko balitz, batzorde horri dagokio proposamenak baimentzea.

10. LANEN JABETZA

Bekaren ondorioz sortutako lanaren jabetza egilearena izango da, baina Orioko Udalak izango du lanaren emaitza ustiatzeko eta lana osorik edo zatika argitaratzeko eskubidea, betiere egilearen izena aipatuta.

11. GORABEHERAK

Orioko Udalak ebatziko ditu oinarri hauetan aurreikusi gabeko gorabeherak, azaroaren 18ko 38/2003 Dirulaguntzen Legea eta gaiari dagozkion gainerako arauak aplikatuz.